

## Antxiñako fotografixia

### Ospittaleko ume txikiñen eskolia

A spalditxotik geukan gaurko argazki hau sail honetara ekarteko gogua. Biharbada ikusi dozue beste lekuren batian argittaratuta, baiña protagonisten izen barik. Etzan samurra neskati-llatxo horreik zeintzuk ziran konturaketia. Oraingo honetan, dandenenak ezpada be, gehixenen izenak jakittia lortu dogu, ezkutuan geratu gura izan dauen informatzaille fin batzuei eskerrak. Makiña bat ume oñatiar pasau zan **ospittal zaharreko eskola** horretatik. Karidadeko monjen ardurapeian eguen **La Milagrosa** izeneko kolejixo ha neskatiillen-tzat zan, baiña beheko mailletan mutikuak be onarketan zittuain. Guk geuk be hantxe ikasi gittuan lehenengo letrak.



Hango maistren artian ezagunenetakua **Sor Paulina Okariz** (1882-1974) izan zan. Lizarra-Estella aldeko Iurramendi-Montejurra azpiko **Morentin** herritxuan jaixotako emakume hau hogei urterekin etorri zan gure herrira eta luzaruan jardun eben parbularixoko neskatiillen irakasle-lanetan. **Eskolia eta ospittal zaharra 1968 aldera bota ziran** oraingo R. M. Zuazola institutua jasoteko. Gaurko fotografixan honetan 1932xan eukan ikasle txikiñekin agiri da monja naparra. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honei-txek dittuzue:

Goixeneko illarari: **Anjeles Biain**, Kanpantxokua; **Maria Elena Otalora**, Kale Zaharrekoa; **Anparo Bikuña**, San Juan kalekoa; **X. X.**; **Pilar Altuna**, Kale Barrikua; **X. X.**; atzerago **Luzia Kortabarria**, Kale Zaharrekoa; **Modesta Iñurritegi**, Kale Barrikua; atzian zutik, **Kasimira Kortabarria**, Kale Zaharrekoa; honen aurrarian, **Juli Kortabarria**, aurrekuaren ahizpia; **Milagros Madinazkoitia**, Kale Zaharrekoa; **Rosarito Otaño**, Kale Barrikua; **Mari Tere Bengoa**, Kale Zaharrekoa; **Mari Kruz Medrano**, Bidebarrietakua; **X. X.**; **Regina Kortabarria**, Kale Zaharrekoa; **Karmen Kortabarria**, Goribar auzoko Ugartondokua; **Maxima Anduaga**, Mendiko kalekoa; **Mari Tere Arregi**, Kale Zaharrekoa; eta **Anjeles Murua**, San Juan kalekoa.

Hirugarren illarari: **Maritxu Elortza**, Araotz auzoko Lurgorritakua; **Nieves Madina**, Atzeko kalekoa; **X. X.**; **Axun Kortabarria**, Kale Zaharrekoa; **Juanita Bikuña**, San Antue kalekoa; **Karmen Etxeberria**, Kale Barrikua; **Sabina Guridi**, Kale Barrikua; **Juli Murua**, Kale Zaharrekoa; **Tina Ezenarro**, Kale Zaharrekoa; **Arantxa Uribarri**, Kale Barrikua; **Ines Urkiaga Luzar**, Kale Zaharrekoa; **Tere Ibarbia Arkauz**, Goizeko Izarra etxian bizi zana; **Maria Luisa Beitia**, Kale Zaharrekoa; **Tere Medrano**, Bidebarrietakua; eta **X. X.**

Bigarren illarari: **X. X.**; **Maritxu Gorrotxategi**, Patrue kalekoa; **X. X.**; **X. X.**; **Maritxu Muñoa**, Kale Zaharrekoa; **Trini López**, tren-estaziñokua; **Juanita Oleaga**, Kale Zaharrekoa; **Juanita Dorronsoro**, San Juan kalekoa; **Andina Arrazola**, Kale Zaharrekoa; **X. X.**; **Elisabet Igartua**, Kale Zaharrekoa; **Genoveva Elortza**, San Juan kalekoa; **Arantxa Lazkanoiturburu**, Kale Zaharrekoa; eta **Mari Karmen Lazkanoiturburu**, Kale Zaharrekoa.

Beheko illarari, lurrian jasarritta: **Maria Luisa Oleaga**, Bidebarrieta-Lekunbarrikua; **X. X.**; **Ana Mari Urrestarazu**, Atzeko kalekoa; **X. X.**; **Arantxa Zelaia**, Atzeko kalekoa; **Pepita Madina**, Atzeko kalekoa; **X. X.**; **X. X.**; **X. X.**; **Loli Urkiaga Luzar**, Kale Zaharrekoa; **X. X.**; **X.X.**; eta **Pilar Guridi**, Kale Zaharrekoa.

J. E